**AGINDUA, 2021EKO UZTAILAREN 15EKOA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUAREN A, SAILAREN 2021-2024 EPEALDIKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA, BATETIK, ETA 2021EKO DIRULAGUNTZEN URTEKO PLANA, BESTETIK, ALDATZEN DITUENA**

**(PES 2021-2024 ETA PAS 2021 PLANAK ALDATZEA)**

**PLAN HORIETAN HONAKO DEIALDI HAUEK SARTZEA: “ARTE ESZENIKOEN ETA MUSIKAREN AZPIEGITURAK”; “ZINEMA-ARETOETAN PUBLIKOA SUSTATZEA”; “KULTURA SUSTATZEA HIRIGUNEAK EZ DIREN EREMUETAN”**

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan aurreikusita dago; horren arabera,

> *"Herri Administrazioetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Nolanahi ere, Plana burutzeko ezinbestekoa izango da aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea".*

Aurrekoarekin bat etorriz, 2021eko otsailaren 18ko Aginduaren bidez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2021-2024 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (PES 2021-2024) eta 2021. urteko Dirulaguntzen Urteko Plana (PAS 2021) onartu ziren.

Ondoren, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak, NEXT funtsen kudeaketaren ondorioz hartutako konpromisoak betetzeko, hiru deialdi berri izapidetzea erabaki du:

- ARTE ESZENIKOEN ETA MUSIKAREN AZPIEGITURAK: Arte eszenikoen eta musikaren azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak.
- ZINEMA-ARETOETAN PUBLIKOA SUSTATZEA: Zinema-aretoetan publikoak sustatzeko, modernizatzeko, digitalizatzeko eta kudeatzeko programetarako dirulaguntzak.
- KULTURA SUSTATZEA HIRIGUNEAK EZ DIREN EREMUETAN: Hiriguneak ez diren eremuetan kultura sustatzeko programetarako dirulaguntzak.

**ORDEN DE 15 DE JULIO 2021, DEL CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA POR LA QUE SE MODIFICAN EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DEL PERÍODO 2021-2024, POR UN LADO, Y EL PLAN ANUAL DE SUBVENCIONES 2021, POR OTRO**

**(MODICIACIÓN PLANES PES 2001-2024 Y PAS 2021)**

**INCLUSIÓN EN DICHOS PLANES DE LAS CONVOCATORIAS: “INFRAESTRUCTURAS DE ARTES ESCÉNICAS Y MÚSICA”; “FOMENTO PÚBLICO EN SALAS DE CINE”; “FOMENTO CULTURA EN ÁREAS NO URBANAS”**

El Plan Estratégico de Subvenciones se encuentra previsto en el artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, según el cual,

> *“Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones, los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria”.*

De conformidad con lo anterior, mediante Orden de 18 de febrero de 2021 se aprobaron el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Cultura y Política Lingüística para el período 2021-2024 (PES 2021-2024) y el Plan Anual de Subvenciones del año 2021 (PAS 2021).

Posteriormente, la Dirección de Promoción de la Cultura, con el objetivo de cumplir con los compromisos adquiridos derivados de la gestión de los Fondos NEXT ha acordado tramitar tres nuevas convocatorias:

- INFRAESTRUCTURAS DE ARTES ESCÉNICAS Y MÚSICA: Subvenciones a inversiones de modernización y gestión sostenible de las infraestructuras de artes escénicas y música.
- FOMENTO PÚBLICO EN SALAS DE CINE: Subvenciones a programas para el fomento, la modernización, digitalización y gestión de públicos en las salas de cine
- FOMENTO CULTURA EN ÁREAS NO URBANAS: Subvenciones a programas para el fomento de la cultura en áreas no urbanas.

Este documento es una representación del original disponible a través del localizador y la sede electrónica indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen eta egoitza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoena.

Horiek horrela, indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkidan eskumenez baliatuz,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.**- Aldatzea Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2021-2024 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (PES 2021-2024) eta 2021. urteko Dirulaguntzen Urteko Plana (PAS 2021), hurrengo hiru deialdi berriak PES 2021-2024 Planari gehituz eta lehenengoko biak PAS 2021 Planari:

- Arte eszenikoen eta musikaren azpiegiturak.
- Zinema-aretoetan publikoa sustatzea.
- Kultura sustatzea hiriguneak ez diren eremuetan.

Eranskin gisa gehitzen dira deialdi horien ezaugarri orokorrak.

**Bigarrena.-** Agintzea Sailaren euskadi.eus webgunean argitaratzeko.

Así, en virtud de las competencias que me atribuye la normativa vigente,

**RESUELVO:**

**Primero.-** Modificar el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Cultura y Política Lingüística del período 2021-2024 (PES 2021-2024) y el Plan Anual de Subvenciones del año 2021 (PAS 2021), incorporando las tres siguientes nuevas convocatorias en el PES 2021-2024 y las dos primeras en el PAS 2021:

- Infraestructuras de artes escénicas y música.
- Fomento público en salas de cine.
- Fomento cultura en áreas no urbanas.

Se incorporan como Anexo las características generales de dichas convocatorias.

**Segundo.-** Ordenar que se dé publicidad mediante su inserción en la web euskadi.eus del Departamento.

---

**Izp./Fdo. BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI**
**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA**
**CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

| **DIRULAGUNTZA DEIALDIA / CONVOCATORIA SUBVENCIONAL** |
|---|
| ARTE ESZENIKOEN ETA MUSIKAREN AZPIEGITURAK / *INFRAESTRUCTURAS DE ARTES ESCÉNICAS Y MÚSICA*<br>Arte eszenikoen eta musikaren azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak.<br>*Subvenciones a inversiones de modernización y gestión sostenible de las infraestructuras de artes escénicas y música.* |
| **Zuzendaritza**: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza<br>***Dirección:*** *Dirección de Promoción de la Cultura* |
| **Programa / Azpiprograma-Subprograma :**<br>4513 Kulturaren sustapena / *Promoción de la cultura*<br>45136 Kulturaren sustapena / *Promoción de la cultura* |
| **Helburu Estrategikoa / *Objetivo estratégico:***<br>Erakusketa-azpiegiturak modernizatzea, eraldaketa sozialen arabera (digitala, ingurumenekoa eta sozio-sanitarioa).<br>*Modernizar las infraestructuras de exhibición en los términos de las transformaciones sociales (digital, medioambiental y socio-sanitaria).* |
| **Onuradunak / *Beneficiarios/as:***<br>Pertsona juridikoak, publikoak zein pribatuak.<br>*Personas jurídicas, públicas o privadas.* |
| **Helburua eta Modalitateak / Objetivos y *Modalidades:***<br>HELBURUA: Eskualdeen dinamizazio kulturala sustatzea, erakusketa-azpiegituretan inbertsioak eginez, teknologiari, digitalizazioari, ingurumenari, segurtasunari eta iraunkortasunari dagokienez.<br>*OBJETIVO: Fomentar la dinamización cultural de las regiones a través de las inversiones en infraestructuras de exhibición en términos tecnológicos, de digitalización, medioambientales, de seguridad y sostenibilidad.*<br><br>MODALITATEAK */ MODALIDADES*<br>Ez dago / *No hay* |
| **Adierazle emaitzak / *Resultado de indicadores:***<br><br>Emandako dirulaguntza kopurua / *Número de subvenciones concedidas* |

| DIRULAGUNTZA DEIALDIA / CONVOCATORIA SUBVENCIONAL |
|---|
| ZINEMA-ARETOETAN PUBLIKOA SUSTATZEA / *FOMENTO PÚBLICO EN SALAS DE CINE*<br>Zinema-aretoetan publikoak sustatzeko, modernizatzeko, digitalizatzeko eta kudeatzeko programetarako dirulaguntzak.<br>*Subvenciones a programas para el fomento, la modernización, digitalización y gestión de públicos en las salas de cine.* |
| **Zuzendaritza**: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza<br>***Dirección:*** *Dirección de Promoción de la Cultura* |
| **Programa / Azpiprograma-Subprograma :**<br>4513 Kulturaren sustapena / *Promoción de la cultura*<br>45133 Ikus-entzunezkoa / *Audiovisual* |
| **Helburu Estrategikoa / *Objetivo estratégico:***<br>Zinema-aretoek ikus-entzunezkoen balio-katean eta gizartean duten irudia indartzea.<br>*Reforzar el papel de las salas de cine en la cadena de valor del audiovisual y en la sociedad.* |
| **Onuradunak / *Beneficiarios/as:***<br>Zinema-aretoen titularrak diren pertsona fisikoak eta juridikoak (publikoak zein pribatuak).<br>*Personas físicas o jurídicas(públicas o privadas) titulares de salas de exhibición de cine.* |
| **Helburua eta Modalitateak / Objetivos y *Modalidades:***<br>HELBURUA: Zinema-aretoetarako etorkizunerako aukera bat zabaltzea, honako irizpide hauen bidez: berrikuntza, funtzionamendu digitalizatu eta jasangarria, publikoak sortuz eta fidelizatuz, eta ikus-entzunezko kontsumoko formatu berrietara egokituz.<br>*OBJETIVO: Desplegar un escenario de porvenir para las salas de cine a través de criterios de innovación, funcionamiento digitalizado y sostenible, creación y fidelización de públicos, y adaptación a nuevos formatos de consumo audiovisual.*<br><br>MODALITATEAK */ MODALIDADES*<br>Ez dago / *No hay* |
| **Adierazle emaitzak / *Resultado de indicadores:***<br><br>Emandako dirulaguntza kopurua / *Número de subvenciones concedidas* |

| **DIRULAGUNTZA DEIALDIA / CONVOCATORIA SUBVENCIONAL** |
|---|
| KULTURA SUSTATZEA HIRIGUNEAK EZ DIREN EREMUETAN / *FOMENTO CULTURA EN ÁREAS NO URBANAS*<br>Hiriguneak ez diren eremuetan kultura sustatzeko programetarako dirulaguntzak.<br>*Subvenciones a programas para el fomento de la cultura en áreas no urbanas.* |
| **Zuzendaritza**: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza<br>***Dirección:*** *Dirección de Promoción de la Cultura* |
| **Programa / Azpiprograma-Subprograma :**<br>4513 Kulturaren sustapena / *Promoción de la cultura*<br>45136 Kulturaren sustapena / *Promoción de la cultura* |
| **Helburu Estrategikoa /** ***Objetivo estratégico:***<br>Kulturaren presentzia indartu hiriguneak ez diren eremuetan.<br>*Reforzar la presencia de la cultura en las áreas no urbanas.* |
| **Onuradunak /** ***Beneficiarios/as:***<br>Jarduera hiri eremuetatik kanpo garatzen duten kultura erakundeak.<br>*Entidades culturales que desarrollen su actividad en áreas no urbanas.* |
| **Helburua eta Modalitateak / Objetivos y** ***Modalidades:***<br>HELBURUA: Hirikoak ez diren eremuetan berrikuntza eta kultura-ekintzailetza sustatzea, kultura-eskubideen erabilera eta kultura sarbiderako berdintasuna erraztea, eta natura-baliabideen erabilera arduratsua eta jasangarria sustatzea.<br>*OBJETIVO: Promover la innovación y el emprendimiento cultural en áreas no urbanas, facilitar el ejercicio de derechos culturales e igualdad en el acceso a la cultura, y la promoción del uso responsable y sostenible de los recursos naturales.*<br><br>MODALITATEAK / *MODALIDADES*<br>Ez dago / *No hay* |
| **Adierazle emaitzak /** ***Resultado de indicadores:***<br><br>Emandako dirulaguntza kopurua / *Número de subvenciones concedidas* |

| PAS 2021 | | | |
|---|---|---|---|
| **4513-KULTURAREN SUSTAPENA**<br>**4513-PROMOCIÓN DE LA CULTURA** | | **Zenbat. Importe** | **2021** |
| ARTE ESZENIKOEN ETA MUSIKAREN AZPIEGITURAK 2021<br>*INFRAESTRUCTURAS DE ARTES ESCÉNICAS Y MÚSICA 2021* | Arte eszenikoen eta musikaren azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak.<br>*Subvenciones a inversiones de modernización y gestión sostenible de las infraestructuras de artes escénicas y música.* | 978.350 | 978.350 |
| ZINEMA ARETOETAN PUBLIKOA SUSTATZEA 2021<br>*FOMENTO PÚBLICO EN SALAS DE CINE 2021* | Zinema-aretoetan publikoak sustatzeko, modernizatzeko, digitalizatzeko eta kudeatzeko programetarako dirulaguntzak.<br>*Subvenciones a programas para el fomento, la modernización, digitalización y gestión de públicos en las salas de cine.* | 1.153.263 | 1.153.263 |